EUZKO - TXINPARTAK

GURE IKURRIÑA

Arana eta Goiri'tar Sabin gure irakasle maitegarrijak erakutsita ikasi gendunez Euzkadi da Euzkotarren aberriya.

Eta Aberri guziyak beren ikurriña-dute: aberri-maitetasun azaugarritzat.

Orrengatik, guk, euzkotarrok ere ba'degu gure ikurriña: margo zuri-gorri-orlegiz egiña.

Beraz, Aberri guziyak beren ikurriña dute beren ezaagarritzat.

Guk ere ba'degu gerea.

Eta Ikurrin guzi-guziyak agurgarriyak dira.

Ikurriñak ez-dira "trapu" puskak bakarrik.

Ikurriñak beren seme guziyak biyotzbarrenean daramate aberri-maitetasuna adierazten dute.

Orrengatik, ikurriñak beti dira agurgarri.

Gure Aberriya, Euzkadi ain bereziya izan arren (eta au ezdu iñork ukatzen) ikurriñik-gabe aurkitzen zan.

Zatika, baña, nor bereak ba'genitugun, euzkotarrak. Naparra'k, berena; Gipuzkoarra'k gerona eta abar.

Baña ikurrin oyek... euzkotarrak beñere bat izan ez-gerala azaltzeko sortuak ziradela ziruditen.

Batasuna, baña, biar-biarrekua zaigu euzkotarrei.

Eta batasun ikurra bezela Arana eta Goiri'tar Sabin aundiyak sortu zuan euzkosene gu'yoi bereziz dagokigun ikurriña: oaintzu arte euzko-Batzokiyetan bakarrik eta España'ko Erkaldea'ren sortueran Udaletxetan eta Aldundiyetan zabal-zabalik egon zan ikurrin eder zoragarriya.

Margo gorriya darama lenbizi gure ikurriñak: odola bezin gorriya. Zenbat eta izaki edo jatorri garbiyagokuak izan, gorriyagua dalako zañetan eramaten dan odola.

Eta gure guraso zarrak, gure asabak ainbat alditan Aberri-aldez odola ixuri izan bazuten, e ekak odolez gorritzerañio, aundiya z lako euzko-bulartsu ayek beren sorterriyanganago zuten maitetasuna.

Bai, "maitetasuna" bezin gorriya zuten odol arrek, gorritu zuan Sabin'en irudimen argitik irtendako oyal maite-maitea: berak berarekin gorriyagotuta utzi zigun ikurrin-maite-berdingabea.

Gure asaba zarrak azkatasun-aldez oparo ixuri izan zuten odola aitatuta ¿nola ez Arrigorriyaga'n euki zuten gudaketatzaz oroitu?

Euzko-abertzaleak Deun Ander egunez ospatzen degu, gure biyotzetako gogorik bizitenarekin, gure antxiñako guraso zar ayek "leondar" eta "asturiatarren" aurka euki zuen garaipen ikaragarriya.

¿Eta nork ezdaki Bizkaya'rekin jabetunairik sartu zirala atzerritar ayek gure Aberriya'n? ¿Baña zer gertatu zan?

Irrintzi aundi bat entzun zan, obeto esateko Aberri-dei bat entzun zan bizkaitarren artian, eta euzkotar bulartsu ayek adoretsu jeiki eta gudaratu ziran.

Arrigorriyaga eriyotz-lañu-otzak estali ta illundu zuan...

Baña laizter argitu ere zan gure Aberriya, edestiyaren beste ainbat alditen bezela.

"Azkatasun Eguzkiya"-k argitu zuan. ¡Ura bai garaipena!

Eta orra, gure ikurrin gorriyaren lauertzetatik, nola sortzen zaigun "gurutze zuriya", gure guraso zar ayen "Azkatasun"-gogo ezaugarri bezela: egun aundi arren oroipengarritzat.

Orra, ene euzko-enai maiteak, zergatik daramagun gure ikurriñean gurutza zuriya.

Gurutza deunaren urrengo, margo orlegiya (berdia) darama gure ikurriñak.

¿Zergatik?

Gure mendi-atsegintsuak udaberriyan bezela, orrelaxe dagokiolako gure azkatasunezko itxaropen beroari.

Azkenik, "gorri" ta "orlegi", gurutze "zuriya" darama gure ikurriñak: "Erosleak, Josu gurutzatuak gure zorra ordaintzeko autu zuanaren irudiya: gure sinismen beroa azaltzeko."

¿Zer adierazten digu onek?

Jaungoikozkoak izan zirala gure aurrekoak, eta Jaungoikozkoak izan nai-degula, ondorengoak.

¡Euzkotarrak! Agurtu eta zabaldu dezagun bada edonun gure ikurrin maite-berdingabea.

Eta maitatu eta jaso dezagun goi-gora euzko-seme guzi-guziyok.

Bada gaur, ikusi-diranak ikusita, bera jaso eta aldeztuko ez duan semerik ezluke biar Euzkadi'k.

Baña... ¡ai au zori-txarra gurea! Ba ditugu oraindik, anayak, euzkotasunari ekiteak baño, Madrid'ko arazuak burukomin geyago ematen diyotenak.

¡Gertaera itxua ta tamalgarriya benetan, negargarri-negargarriya ezpalitz!

Oraindaño, alako "arrazoi" tankera piskarenbat azaldu izan dute, "Euzkeraz jan eta erderaz bizi" nai izan duten euzkotarrak; baña gaur... ikusi-diranak ikusita... ezin ezer esan dezateke.

Euzko-ikurrin onen azpian euzko-seme guziyak bildu biar dute.

¡Galduak gera bestela!

Bada egon sinisturik: España-zaleak ez digutela ekarriko:

Ez "autonomía"-rik.
Ez "Libertador"-rik.
Ez "Estatuto Gestora"-rik.
Ez "Fuero"-rik.
Ez "Lege-Zarrik".
¡Ez Azkatasunik!

Eta sinisturik egon, ene euzko-anai malteak: Ez "Autonomia"-rik, ez "Libertade"-rik, ez "Estatuto - Gestora"-rik, ez "Fuero"-rik, ez "Lege-Zarrik", ez "Azkatasunik" ez digutela ekarriko:

Ez Alkala'k.
Ez Zamora'k.
Ez Prieto'k.
Ez "Toyos"-ek.

Baizik... ¡¡Euzko-Abertzaletasunak bakarrik!!

ZELETA.

EUZKADI-ren ainbat irakurlek galdetu diate atzerri-aldean ibilli naizeneko idazkiyak bukatuak dituten edo geyago argitaldu biar ote-deten. Jakizue, eme irakurleak, oraindik ba ditudala ainbat argitaltzeko: Zaragoza'ko gora-beratzaz bi edo iru, eta Madrid koatzaz sai edo zortzi.

Batibat Madrid'ko Lekaretxe (Komentu) erretzeatzazkoak atsegin izando dirala uste det EUZKADI-ren irakurlientzat.—Zeleta.

ERRIJETATIK

ELGOIBAR

ONGI ETORRIA. — Oztiral golzian azaldu zan erri onetan gure izparringi maite au, EUZKADI.

Illabetean egon da azaldu gabe eta illabete au urtia bezelako aundia izanda.

Laugarren jayotza au izan dedilla betikoa eta segi beti gure Jaungoikoa eta Legezarraren alde.

ERIOTZAK.—Igande gabean il ziran Iglesias'tar Eladia eta Arze'tar Ambortzi.

Biyen obiratzeak egin ziran astelen arratsaldean notintza aundiakin.

Lagutzen diet atzegabean biyen sendiari.

NASTE-BORRASTE.—Astelenean emen agurtu nuen "Altzeta" idazle eta izlari ospetxua.

—Comillas'era juan da Gabilondo'tar Joseba, ikastolara.

—Asteazkenian emengo "Gure Ama Pilare" ikastolako mutillak Eskoriatza'ra eguna igarotzera.

—Ostegunean erri onetako ikastolako umeak juan ziran Loyola, Zarautz, Zumaya eta Deba'ra eguna igarotzera.

ATXOLIN

EUZKADI ONGI ETORRI.—Maura'k eta Prieto'k batere erru gabe ainbat egunian agertu gabe egondu da gure EUZKADI izparringi maitea. Ongi etorri EUZKADI gure izparringi gure artera.

EUZKEL IZENAK.—Txadon onetan ugutzau dira, Orbea'tar Joseba Mirena eta Leiaristi'tar Andene "Mokoroa" baserriko semetxo bat.

Baita ere Zabaleta'tar Joseba Mirena eta Etxebarria'tar Koldobika "Amoskai" baserriko semetxo bat ugutzan dute euzkel izen politak esarririk "Sabin" "Justo".

Gure lagun eta ziñegotzi abertzalia dan Opakua'tar Benino'k, eta bere emaste Elortza'tar Gerbase'k, "Pantzeska" "Joseba" euzkel izen politak esarri diote beren seme jaio berriari. Zorionak gurazo euzkelzale biori eta jarrai aurrera olantxe.

IZPAR BELTZAK.—Jauna'ren besoetan ill dira 33 urte zituala, Iglesias Mendieta'tar Eladi mutil gastea. Baita ere 20 urtekin luzaro gaxo eginda Jaunak beregandu zuan Arze'tar Anbortzi.

Laguntzen diegu atzegabian sendi bieri.

IBILLALDIAK.—Aste onetan ikastoletako mutiko neskatxak, egin dute urteroko beren ibil aldia, beren irakasle edo maixuekin.

Marianistak beren ikalesleikin Ezkoriaza'n izan ziran, Deun Kepa, eta Laurentzikuak Markiña, Ondarroa, Motriku, Deba eta maixu nacionalar Zarautz'en izanda ziran.

TXETARKETA.—Elgorrixa'ren aurkako txetarketa egin dute, emengo zendagilliak urtero bezela.

ZORNOTZA'RA. — Gar aundia dago emengo abertzalia artian, gaur igandez Zornotza'n egingo diran Gallastegi eta Zabala'ren omenes gertatutako euzko jai, eta itzaldia entzuteko.

¡Elgoibartarrak! ¡Abertzaliak! gustiok gaur Zornotza'ra!

AIXERIXA.

ZEANURI

MIXIÑU EGUNA.—Gaur izango da erri onetan, aldiko mixiño eguna. Amarretan jaupa abestua Valdés Goikoetxea'rena bertoko abeslariak abestuta. Eskintzan "Oremus pro Pontifice". Itzaldiak goiz da arratsalde Salazar'tar Pantzeska da Garaigorta'tar Jon'ek.

Arratsalde'an txadonkisunan ondoren. Antzeskizun polita Andra Mari elezpean alkar-izkekta eta abar mixiñoatzaz.

NASKALDIJA. — Ondorrabitik gogoiñarkunak egin ondoren etorri dira Aldekoa'tar Jon da Gorostiaga'tar Euloji. Baita tokiatatik etorrita emen agurtu dogu Maruri aba, olezkari bikaña.

Laguardia'tik etorri da Gorostiaga'tar Paul jauparia. Baita Puxana'tar Miren da Ozerinjauregi'tar Gotzone.

Madrid'tik errionetako alkate jaun Goikoetxea' tar Eleuteri.

Natxitua'tik, Ozerinjauregi'tar Pelise.

Bilbo'tik, Intxaurbe'tar Jon abertzalia.

Alzola'ra urek artzen yoan da Intxaurraga'tar Pantzeska erri-idazkaria.

DEUN MIKEL. — Urkizten domekan ospatuko da. Amarretan basotxano'an jaupa txonitzagaz izango da.

Altzuzte'ko auzunian bere egunian dotoltazun andiagaz ospatuko da urteko auzuneatako jai nagozie. Goxeko jaupa txonitza abar bertako basatxanoan. Arratsalde'an jolaz politak auzunian. Sariak dantzari aurrezkulari ta abar... ondo legoke abertzaletasuna zer dan yakinazoteko berbaldia abe.

DEUN ANDONI. — Ermitatxo polita egiten daragoyen. Errotaetxen jauregi ondoan.

LUGIÑAK.—Ire-ebateak dirala ta goizgoxetik ikusten dira aldrak basora gaberarte zereginorretan. Azpigarriak benetan zeregintzuak dira emen.

EGURALDIA.—Egun argi da eguzkitzuak egiten dauskuz, baña gabetan otzegiten dau. Artoak da indababak ondo eltzen badira aurten ugari izango da. Baita sagarra da ostantzeko igaliak bai dira aurten.

AREATZA-VILLARO'TIK. — Euzko Estatutia dala'ta ikkusi dan lez euzkal-erriko erririk geyenak yoan dira edo bidaldu dabe endore jauna. Ba Areatza'tik ezta yoan iñor. Emen yagok yente modue! Lotzatu bez... Leiseka edo Laiseka'n esanean egoten

—Intxaurbe'tar Peli Valderrediblen irakasle. Zeure idazkiar'ri itxoten gagoz. Beste barik aituko dozu.

BASERRITAR BAT

AZALPENAK

OLERKARIJA

LAUAXETA

Arrese'tar Emeteri, gixon zarkote bat zalakuan neguan ni. Gastia danik ezdot uste, orain be, baña baserritar gixajuazalakuan enbillan.

Urte batzuk badira, umia nintzan, "Bere Bidean" derixton liburuba esku artian erabilli nebala. Olerki politak, gaur zartxubak diran arren. Gipuzkeraz egozan eta gauza gatxa zan neuretzako, areik irakurtia, baña guna, muina euren goxua eta azkeneraño irakurri nebazan. Orduban olerkari anditzat eneban bayeztu Arrese jauna. Berak erabilenten ebazan gayak, sortubak barik iñundik atzemonak ziralakuan. Umian ustiak ziran ayek.

Baña geroxe argitaldu eban "Txindor" igazkija. Zelako ordu goxuak igaro dodazan idazki ori irakurtian. Jaungoikuak ordainduko al dautso egilliari, egin dausten mesede guztija. "Txindor" irakurtian buruba obeto jarrija neukola dirdudit eta Arrese olerkari andija zala ontzat artu neban.

"Nere Bidean"or dudurarte ixan gendubazan bertzolarijen antzekua baño etzan. Neurtitzak landubaguak ekartzan, gayak bere obak. Baña adimenak ez eutsoen bestiai alde andirik kenduten.

Bigarren liburuban ostera olerkari egiña zala erakutsi eban. Euzkeria berak gura daben eran darabillela esku artian. Zelako bertzo landubak eta orraztubak idoroten nebazan.

Eztakit zegaitik, baña euzko olerkarijetan neurtiz landubak atsegin yataz. Euzkeraz errez dalako bertzuak egiten edo? Azalpenik emotera enago gaur, baña gauza atsegintsuba da gaik eztaukoenak, azala landutia beintzat. Izkuntzak edo eliak aurrerapen andija lortuten ddu olako bertzoetan.

Azalagaz bakarrik ostera naikotuten ete naz Arrese'ren olerkijetan? Ez arrano. Badira liburu orretan gorengo tokijan jarri biar diran olerkijak. Modernistak eta zer diran euzkeldun gitxik jakingo dabe, ezta musicales eta lapidarios zeintzuk diran be. Arrese musicales deritxoen olerkari artian ipiñiko neuke. Ereslarija dogula jaun au dirudi bere bertzoetan. Gayan barri modernista antzekua. Ruben Dario ezeze beste America aldeko olerkari batzuk jo dautse gogua.

Onegaz bere aurkakorik eztiñogu, aintza baño.

Gixon au munduko eguzki askoren itzalpian ibillija dozu eta gaurtoki batean eta bijar bestian, jakinguriak eta irakurri nayak minduten ixan dau. Benetako olerkarija ixan ezpazan laster alde batera itxiko ebazan olerki eta euzkerazko idazlanak. Baña munduko ibiltaldijetan be barneko olerkari iturrija legortu ezin ixan dabenak, erraso andijagaz olerkarija dala esan leike.

Batzuk bohemio erderaz deritxaguna dala diñoe. Eztakit zer ixango dan. Neure ustez gixon artega baida. Poliki iñuan bein baten zer eragiten eutson olerkijak soru-azo:

"Jan-edan utzez bixi nai ez-ta
asmo garbien zale geranak..."

Ona zer eragiten dautson. Asmo garbiak erabilli nai. Asmo argijak yente guztijen onerako. Baña ze olerkari apala eta euzkeltzalia dan, argi esango "Txindor" egitiar idazti ebazan itzak: Neurtitz oek, beraz, onespen-gai ixan al balitezke, nere arazoen saritzat lortu nezaken ordañik aberatzena orixe litxake: euzkaltzalean biotzari deika alper alperrik ibilli ez baizela jakitea."

Onelako itzak jarri dabezan gixonak benetan meresi dau guztijon maitasuna. Gorazarre onetan ba, pozik batzen garaguztijakin eta agurtuten dogu Arrese'tar Emeteri jauna. EUZKADI izparringijak pozik goratuten du Euzkadi'ren seme. Gaurko jayaren ordain sari barriz beste irugarren idazti bat eskatuten dautsogu olerkari andijari.

Itxasoa

I

Eguzkiz bete balitzaio-re
une gezala,
garden lori ta sotillago ez
itxas zabala;
badirudi gaur maitaro bere
barrengo itzala
goi-oztiñeko leñuru batez
argitu dala.

¡Alatz urdiña! Zer eztai emen...
zer, nungo zori...?
Itxaso berdin onek irripar
gozoa dagi;
ta noiznai bere apar-xareaz,
eule maitari,
laztan txuri bat ematen dio
Donostiyari.

Arrantzalien lagun gaur, eta
biyar illobi,
nork esan orren aldakor danik
urdin-soil ori?;
marmario ta jolas ariñez
orain emeki
urbildu arren agiyan etsai
liteke sarri.

II

Orduan goibel... izugarrizko
indarrez azun,
tximist, aize ta kemen guziyak
arturik lagun,
odoi-mordoen errai beltzetik
¡an dator illun,
an dator gainka orro ta txistu,
durun ta durun!

¡Arkaitza jo-ta lertzen danean,
ostera bere
seta makurrez gero ta geigo
atzetik beste
ur-mendi-sallak tontorka datoz
lerkoi, asarre,
¡ur'tar guzien gañez erabat
irauli zale.

... ...

Intziri sakon egille beti,
naiz osiñ-arro, naiz ugin-bare,
zerbaiten biotz eskutuko zu
idaroki-gaiz bete zaude!

Espetxean

Gau illunan, lo goxoak,
Bakez gure mutillak,
Abesti bigun-samurrak:
¡Itxartu abertzaliak!
¡Zer entzutendabe
Geure entzugiñak!
Kaleko illuntasunan
Abertzalian dei sutsubak:
¡Ez bildurtu, mutillak!

✤ ✤ ✤

Ama laztan laztantxua
Artu geure odol garbia
Ez dogu jango jatekoa
Artu geure arnas bixia
¡Amatxu ez egin negar!
Lenago ilgo gara
Espetxe baltz onetan;
Euzkotar ama zeu-zara
Maite zaitut ben-benetan.

✤ ✤ ✤

Azkatasuna etorri da
¡Altza! Gaste ta zarrak
Ama sartxua ez natu da
¡Aurrerantz euzkotarrak!
¡Gora Euzkadi! didar egin
Bekoki goi ta garbiaz
Aberriyaren bidetik;
Gure amatxuren negarrak
Urten dabe begitik...

... ...

Garbitu-barik euki, euren argitasuna
Olan ekarriko dabe geure azkatasuna.

ERLETXUE

Olerkari barrija zaitugu, baña Aberrijaren miñak jota zatorz. "Erletxue" ez ixena polita baita, lorarik ederrenatan ibilli zaitez egazka. Atal onetara ezti apur bat ekarri egixu. Ondo etorrija, ba, lagun.

L.

Agur, Euzkadi

Arratsalde da.
Itxasoa arki naiz.
Urruti... doi, doi,
lanotsu dager
Auñamendiko
erpin-lerroa;
ubelantz ene
aberri polit
maitagarriya...,
oroi ederren
kabi gozoa.
Itxasoaren
murmur-otsa-gain
kayo bakar bat
aruntz dijoa;
ta... noralderik ez dun
antxeta bezin larri
biotzaren kal billa
artega dabil
nere gogoa.
Eguzkiaren
biribil solla
ziaro gorri...
Odelak sotu dira;
itzalune bat
une guziya
izain da sarri.
...Ega leikorraz nere
dardar-txoria
sorterriyaren
kolkora doa
anitz urduri,
eta itxas-ontzi au
ke-mordol usu
beltza botaka
biziro zorrotz
aurrera beti.
...Arratsa dator;
odei-naspillak
lozorro baten
eraz dagertzi.
Goibel au etsai-ozin...
Ipasterreko
mendatz bat ere
nai arren ezin...
ezin ikusi!

... ...

Begietan nik orain
gau illunaren
illun sakona;
oroitzez baña
gogoan argi!
¡Agur txoko maitea,
ene laztana...
biotz-biotzez agur,
¡agur, Euzkadi!

Gau-eder

Jan edan utzez bizi nai ez-ta
asmo garbien zale geranak
gau ixillean jarrai-erazten
gaitu pozaren goruntz-egadak.

Arrats gozoa...! Izar bikañez
piztu da orain ortze garbiya...
Eratsu dator..., geldi-geldiro,
illargi bete zoragarriya.

Itxaso bare sotillak emen
aldi berdiñez, logura xamar,
bere bits arro txuri-txuriya
ondar gañera polliki dakar.

...Kezka larri bat arindu nayaz
begiratzen det urrun... an gora!;
t'andik izumai atsegiñaren
arnasa dator nere kolkora.

Gaberdiyaren ixil-uneko
lillurapean... ¡orren gentzaro!;
lurtarrik ez dan ames-tokira
aldatu banitz bezela nago.

Nere barruan orain ez digart
zorigaitzaren ale bat ere:
azi txarrak on biurtu zaizkit,
samiñak ezti, arantzak lore.

... ...

Jan-edan utsez bizi nai ez-ta
asmo garbien zale geranak
gau txillean jarai-erazten
gaitu pozaren goruntz-egadak.

Léase EUZKADI

MAÑARI

POZTUTEN GARA.—Jeltzalian izparringi maite au, illabetian nai-ezko ixilpia igarota, andiro ta adoretsu, beti lez, barriro agertziagaz asko poztzen gara. Ta Jauna'ren laguntasunaz, mundua mundu dan arterañoko bizija opa dautsogu. Jaungoiko ta Aberrija'ren aldez zintzo-zintzo jokatu daijan, oraiñarte lez.

EUZKEL-IZENA. — Illa onen 2'an, ugutzau zan emeko eleizan, Mendiburu'ko Goiti'tar Jon'an alabatxo bat, Errosale euzkel-izen polita ezarririk. Aita-bitxijak, Solaguren'dar Mikel eta Aldekoa'tar Gotzone izan ziran.

Zorijonak, guraso abertzale zintzuari.

JUAN ETORRI. — Madrillera osteria eginda, eguenian etxeratu zan Barazar'tar Estepan, gure alkate jauna.

—Landaluze'ko ta Urekin'go mutikuak, eguaztenian, Naparrua'ko komentu batera juan ziran, bertan geratzeko asmuaz.

—Emen egun batzuk igarota, aste onetan juan da Billafranka'ra Simean Aita, karmeldarra.

—Asteartian, Urkiola'n agurtau gendun, Artzubiaga'tar Kuiril jauna "Jaungoiko-Zale" aldizkingi ederraren artezkari on eta zurra.

—Elberdin'dar Albereda mutikua, aldi luze bat igarota Galdakano'ra juan zan.

—Lengo astian egon zan emen Usaola'tar [illegible] abertzale zin[illegible].

—Sarobe'tar Jorka [illegible] ustindarra, egun batzuk igaroten a[illegible] da.

—Urkiola'ra osteria eginda, igandian egon za[illegible] emen, Ertzilla'tar Gerbasi abertzale zintzua.

ETXE BARRIJA.—Belakortu'tar Jon, aspaldiz Bilbo'n bizi dan Agerre'ko etxagunak, emeko Tellerija-burua'n etxebarri bat laster egiteko asmua dauko. Ta, etxia egiten dabenian, uriko zaratak atsegin etxakozala-ta, bertara biziten etorriko eida. Ederto pentzaua; baserriko bakia urrez be ezta ordaintzen da.

URKIOLA'N.—Igandian, Bilbao'tik Urkiola'ra bosteun lagun inguru bidezkundez etorri ziran. Bertan, Jauna agirijan zala eleizkizun eder-ederrak egin ebezan. Berbaldijak be oso ederrak. Aintza Andoni deuna ri!

LAPURRETA. — Igaro zan illian, Amantegi'tar Lon'an dendan, lau mille lauerlekuen balijua gauzatan ostu eben. Lapurrok, dendako leyuari burdiña-esija ausita sartu ziran. Belbillian etorri zirala edo.

Lapurreta onegaz, errijan, bildur-ikara errimia artu zan; eta neurrijak artzen beinguan asi ziran. Barriro baletoz, gauzia ain erraz eta leun eleukie aurkituko... Txarrez datorrena, beti oddo artua ezta izaten da.

Aspaldijon, arpegi ezezagun asko ikusten izan dira errijan. Lengo illuntze baten be, gizon begirakune itzeldun bat agertu zan. Norbaitek esan ebanez, bizarra be ipinija (eztixua) eukan gizon bildurgarri arek. Diziko ete gara...?

BIZITEN ETORRI. — Durango'ko Mendizabal'dar Joseba "Silibranka" ko makiña-etxera, bere sendijagaz bizitzen etorri da. Ondo etorrija.

IZURTZA'RA.—Ill-onetako igandietan, emeko gazte geyenak Izurtza'ko erromerijetara juaten izan dira; ta illuntzietan, erroskilla mortxo ederrakaz pozez etxeratzen izan di. . Aurten, Izurtzan, ikusi ta sinistuteko moduko jayak egon dira. Jaieraltzailliak, edozelan be, "arka ostekuak" eztira izan; azkenengo modiaren barri jakin dabe beintzat...

MAÑARIKO.

Euzkal-Orrian Iragarkiak Ipintea, euzkaldunen artean eta saleroslean artean alkartasuna eta ondo-gurea zabaltzea da.

BERMEO

"EUZKADI"-REN AZKATASUNA. Gaur goixian jagi ogetik eta bai noa betiles eguraztoki'ko "Luki"-ren etxe-txura, itxandu ten ¿etorri da aberkide, izparringia? da diñost: bai, etorri diras eun da irurogei zenbaki baño ez dagoz saspi baño (ori arrantzaliak itxasoan egon da) baña uste dot oiñ ezkero laster amaituko dirazala danak. Emoistazu bat-ba amaitu orduko berau da gure gogo-ko ogia ta Eutzi.

¿Uri onetan ze poz andiagaz artu da izparringi onen urte era? ¿Zenbat aldijan itxasotan? Ordu onak-ba, da ongi etorria izan zaitezala, gaur, iñoz baño egokiago, anai artu emonak jakiteko biar ezan andia dagota. ¡Gora! EUZKADI izparringi maitea. ¡gora! geure aberri lastana ¡gora!

EZKONTZA.—Poz andiagaz jakiñ degu illonen ogetamar'ian gure lagun andia dan. da Abertzale bizkor sutsu ta mutil gaste morrosko dan Beltran'tar Jon, aikartuten dala mundakar neska polite liraiñ da abertzale benetakoa dan Mantxobas'tar Miren andere ñuagaz. Aurretiaz artu egixu nere benetako biotz agur, ta zorionik beroenak zeuben bizitza barria, ta onu bat; biar edo etzi dotortzuan motxolo-kutunxuari irakatzi zerdan bere aberri ta edesia. Zorionak.

ARRANTZAN.—Itxosora bai dabiltza baña ez dabe asko arrantzaten.

URKIDI.

GUZURA

EZTOZU ZEURE ABERRI GAIZKATASUNIK NAI, "EUZKADI" EZTAN BESTE IZPARRINGIRIK IRAKURTEN BADOZU

Umientzat = Ipuñak

SEME ONA

Salerostetxe (1) aundi bateko sarigarri (2) arkitzen zan Andoni. Bere aitak etxe artatik ateratzen zuen bizibidea, arkezle (3) bidaztuaz (4).

Alako egunean aitak nagusiaren agindu itxasostera joan bearra izan zuen. Itxasotziratu ta laister jakin zan ontzi au itxaslapur batzuek arrapatu zutela; ta iguru guzietan galdekuntzak egin arren etzetorren inondik ere Andoni'ren aitatako izparrik.

Andonik bete zuen beriala sarigarritza ta nagusiak, bere zintzotasuna ikusita eman zion bere aitak zuen irabazpidea. Ateziz ta zindoro jarraituaz laister aurretu zuen diru puska bat.

Alakoren batean, jakin zuen Turkian ikitzen zala bere aita moamar baten jopu morroi, ta erabaki zuen nolabait joputasun (5) artatik azkatutzea. Orretarako iru askotxo bear zuen, ta lendik aurreratakoak geitutzeko zaldu zituen janzki beste domu'dun (6) gauzaki guziak bearrekoak ez baizik. Bidaldisaria (7) aurreztutzearen sartu zan otseintzat eterantz (8) zijoan itsasontzi baten; ta el zan Turki'ra.

Aitaren berri jakin ondoren joan zan menpeko zeukan maomar aberatsagana, eskatu zion gogoz ta biotzez bere aitaren azkatasuna diru-ordañez.

Bañan maomarrak Andonik zeukan balio askozaz diru geyago eskatu zuen.

Andoni biozkatu zan; ta aita'ren azkatasuna diruz erosi ezin zuen ezkeroz eskatu zion maomarrari:

—Jauna: Azkatu zazu arren, nere aita ta bere ordez ni geldituko naiz zure jopu. Berak bezin ondo gomenduko (9) zaitut.

Maomarrak agindu zuen deitzeko berriala arrotz (10) jopuari. Alkar ikusteaz batean besarkatu ziran aita-semeak, eta takera ortan, begiak malkoz beterik, itz-egiteko adorerik gabe, arkitzen ziran biyak.

Jakin zuenian aitak Andoni eskeindu ala bere ordez gelditzeko, biotz-ikaraz asaminki malkoak ixuriaz onela zion:

—¡Ez seme, ez! Geyegi dek ori: ¡Nere bizitza laburra izango dek!

—¡O nere atatxo maitea!—erantzun zion Andonik—. Ez dakigu zeñen bizitza izango dan laburragoa; ta gertu nago, ez bakarrik zure joputasuna neregain eroateko baita nere bizia emateko ere. Tori zu eroateko ustez ekarri ditudan diruak. Oyekin ordaindu dezakezu arantzko bidaldia, ta Jaungoikuak onetsi zaitzala. Ni emen geldituko naiz.

Itz auek entzuteaz biotz-ukitu zan maomarra, ta esan zion Andoniri:

—Gazte: Seme bikain ta zintzoa ai. Beraz, ordainketa gabe azkaturik geldituzten dek ire aita. Gañera, nik ematen diz salerostetxe bat jartzeko bear dekan aiturdiru. Jaungoikoaren aginduari jarraituaz aitaganako maitasun osoa agertu dekalako.

Azten badituk seme-alabak gizapideri Igaroko dek zartzaroa atsegiñez.

(1) Salerostetxe=Casa de comercio.
(2) Sarigarri=Meritorio.
(3) Aurkezle=Representante.
(4) Bidaztu=Viajar.
(5) Joputasun=Esclavitud.
(6) Domu=Valor.
(7) Bidaldisari=Gastos de viaje
(8) Egutera=Oriente.
(9) Gomendu=Servir.
(10) Arrotz=Extranjero.

Erredíak (muebleak) bear dozuzanean agertu bat egizu

GOIRI'REN ETXERA

ARTEKALLE, 2 GARREAN (arkupean) Eun ola ta eterki ola. Iñun baño merkeago

Notas obreras

S. DE O. V. DE BERGARA

Junta general extraordinaria

Se ruega a todos los socios de Solidaridad de Obreros Vascos acudan a junta general extraordinaria que se celebrará el día 27, a las once de la mañana.

Por ser los asuntos a tratar de suma importancia, se ruega puntual asistencia. — El presidente.

EXTRANJERO

EL SEGURO DE LA HUELGA FORZOSA EN EL CANADA

En el obrerismo canadiense, tan intenso los gobernantes ponen todo su empeño en conjurar la crisis obrera reinante.

Pero hay mucho atraso todavía en estas gestiones. Al seguro de la huelga forzosa quiere simultanearse el de la enfermedad e invalidez, sólo que se necesita un censo previo, que aún no se ha confeccionado.

Sin embargo, el Gobierno del Canadá, a pesar de las prevenciones de su primer ministro, Benett, que considera que, sin ese censo, se va a cometer un "desastre"—por la mala situación financiero-económica del Dominio—, ha dotado ya veinte millones de dóllars para ayudar a los obreros sin trabajo.

APLICACION DEL SEGURO

La Ley del Seguro contra el paro forzoso rige desde marzo. Colabora a proporcionar trabajo a los huelguistas, y en un informe oficial reciente se lee que, según las estadísticas facilitadas por las provincias canadienses, las Compañías de ferrocarriles y los servicios administrativos, cumpliendo los preceptos de dicha Ley, han hallado la manera de dar trabajo en menos de un año a 248.274 personas, lo cual representa un total de 4.857.217 días de trabajo. Y aun este total es incompleto, pues no se incluyen en él el obtenido en la provincia de Quebec, que es inmensa. En millares de Municipios se ha dado trabajo a obreros, y se realiza un afán común de ayudar al hombre sin ocupación.

Aparte, se practica el sistema de subvenciones y socorros con buen resultado. En breve tiempo aparecen socorridas 31.793 familias y 82.477 individuos, por socorros de estos. Tampoco se comprende en este cómputo la vasta provincia de Quebec, pero consta que se han socorrido también en ella a 28.257 familias comprensivas de 122.946 individuos.

La Ley de alivio obrero tiene una Comisión especial que entiende exclusivamente en este asunto.